

PLAZA **B**ERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

12-3-21 2.ALEA

ARMARRI BERRIAREN BILA

8. ORR. ►►

2012KO
AURREKONTUAK

4. ORR. ►►

AHT: HERNIALDE
ZIZURKIL
TARTEA

6. ORR. ►►

TXEPETXA
GAZTE ASANBLADA
BERRIA

11. ORR. ►►

ALBISTE LABURRAK

Zizurkilgo Udalera iritsi den epai batek Udaletxean Espainiako bandera jartzeko agindua eman du.

Bandera espainiarraren afera

Urte hasieran iritsi zen Udalera epaitegiaren azken erabakia: Zizurkilgo Udalari bandera espainiarraren jartzea agintzen dion epaia. Afera orain urte dezente hasi zen, Partido Popularreko zinegotziak jarritako salaketa baten haritik. Prozesuko azken epaia da oraingoa, ezin da errekurso gehiago jarri. Epaia bete ezean, bandera derrigorrean jarriko dela dio sententziak eta udal ordezkarien aurkako epaibidea has daiteke.

Herritarrekin batzarra

Gai honek duen pisu sinbolikoa ikusita, Zizurkilgo Udalak herritarrekin erabaki nahi du hartuko den bidea. Bilduko bes-

te hainbat Udalen aurka antzeko prozesuak abian jarri dira, baina Zizurkilgo kasuan azken epaia lehenago iritsi da salaketa aurretik jarri zelako. Udaletik salatu dute "Bilduri kalte egin eta kriminalizazio bidea irekitzea" dela ekimen horien helburua. "Herri-tarrekin aztertuko ditugu irtenbideak, erabateko soluziorik ez dagoela argi utzita", azaldu digu Joxe Mari Luengo alkateak.



La sentencia sobre la bandera Española

El ayuntamiento de Zizurkil recibió a principios de año la sentencia que le obliga a colocar la bandera Española. Es la última sentencia, es decir, no cabe recurso alguno. Si no

se coloca la enseña, la sentencia advierte que se solicitará una ejecución forzosa de la misma. Visto la importancia simbólica de la decisión, el ayuntamiento analizará la

cuestión en una reunión con los y las zizurkildarras. "Analizaremos cuál es la mejor solución, aunque no hay recetas mágicas", nos comenta el alcalde Joxe Mari Luengo.

Zero zabor taldea

Zizurkilgo hilabete batzuk daramatza lanean Zero Zabor taldeak. Apirilaren 21ean aurkezpen festa egingo dute, hainbat ekitaldiren bidez

herritarren kontzientiazio lanean sakontzeko. Taldetik, euren bileretara azaltzeko gonbita egiten diote interesa duen herritar orori.

Antzerki astea

Aurten ere antzerki astea prestatzen ari da Udala, kultur batzordearekin batera. Oraingo hau X. aldia izango da. Adin guztietako pertso-

nentzako antzerkiak izango dira, apirilaren 23tik 29ra bitartean. Aurtengoan, Villabonako Udalarekin elkarlana landu da.

UDAL ADIERAZPENA

Adin Txikiko zentroaz Udalaren adierazpena

Azken asteetan zenbait hedabideetan eztabaidagai bihurtu da 2007tik Zizurkilgo kokatua dagoen adin txikiko zentroaren gaia. Zizurkilgo Udalbatzak gai honen harira adierazpena onartu zuen azken osoko bilkuran.

Duela 5 urte kokatu zuen Gipuzkoako Aldundiak Zizurkilgo familiatik bereizitako bertako adin txikikoak kokatzeko zentroa. Argi adierazi behar da, ez direla delituak egin dituzten gazteak, baina noski, gehienek ez dute bizitza erraza izan familian, erakundeek euren-gandik bereizteko erabakia

hartzeko. Azken urteetan hainbat kexu izan dira zentroaren harira, eta Udalak onartzen du, bereziki, erai-kinaren alboko bizilagunek ez dutela behar luketen bizi-modu duina. Udalaren jarre-ra finkatu nahian, Zizurkilgo Bilduk eta EAJk adierazpena adostu dute, azken udalbatzan aho batez onartu zena.

Hauxe hitzez hitz onartutakoa:

Zizurkilgo Udalak adierazpen honen bidez, azken asteotan eztabaida publikoa piztu duen adin txikiko zentroari buruzko bere jarrera argitu nahi du, polemika gehiago ekidin nahian. Hainbat puntu nabarmendu nahi ditu:

1-Gipuzkoako Aldundia-rena dela bai eraikina eta baita bere kudeaketa ere. Zizurkilgo Udalak ez du eraikinean inongo eskumenik.

2-Beste ezerekin gainera, bizilagunei laguntzeko prest egon dela eta egongo dela beti Udala. Bai bizilagunen bizi-baldintzak eta baita zentroaren funtzio-namendua hobetzeko ere

aldundiarekin bitartekari-tza egiteko prest gaude.

3-Bide horretan Aldundiari eskatzen diogu etxearen insonorizazio lanak hobetu ditzala eta azter ditzala zentroaren funtzio-namendua hobetzeko neurriak, besteak beste, azkar dezala ahal den neurrian nerabe gatazkatsuak lekualdatzeko protokoloa.

4-Era berean, Udalak adierazi nahi du ez dagoela ados herrian beste kokaleku bat proposatzea irtenbidea dela esatearekin. Arazoa ez baita konponduko lekua aldatuta, zentroko funtzio-namendua eta bizilagunen bizi-baldintzak hobetuta baizik.

Declaración sobre el centro de menores

En el pleno de febrero, se aprobó por unanimidad un documento sobre el centro de menores de Zizurkil. Este centro, que está situado en Zizurkil desde el 2007, alberga a menores autóctonos que no tienen la cobertura familiar adecuada. No son

menores delictivos, pero está claro que no han tenido una vida fácil. Mediante la declaración consensuada entre PNV y Bildu, el ayuntamiento quiere aclarar su opinión sobre el centro de menores, con el fin de evitar nuevas polémicas públicas.

En el primer punto, se aclara que "el centro es propiedad de la Diputación de Gipuzkoa, así como la responsabilidad de su gestión". En los siguientes, el consistorio se pone a disposición de los vecinos. "Estamos dispuestos a me-

diar con la Diputación con el fin de mejorar las condiciones de vida de los vecinos". Así, el ayuntamiento reclama a la Diputación "que mejore la insonorización del centro y estudie las opciones para mejorar su funcionamiento".

ERREPORTAIA

2012ko aurrekontuak, onartze

Nerea Lizarraga ogasun zinegotziak eman dizkigu Udalaren aurtengo diru kontuen inguruko azalpenak. Herritarrei eta beste alderdi politikoei aurkeztu ostean, martxoa amaieran onartuko dituzte.

3,935 miloi euroko gastua aurrikusi du Zizurkilgo Udalak 2012rako. 2011n aurrikusitako gastuaren antzekoa da. "2011n ordea, gastu erreala handiagoa izan zen, aurrekontuak ez zirelako batere zorrotzak. Guk alorrez alor aztertu ditugu, hainbat murrizketa ezarri ditugu, eta ziur esan dezaket aurrekontuaren gainetik ez dugula gastatuko". Murrizketak egin ez balira, aurrekontua handiagoa izango zela azaldu digu Lizarragak. "Izan ere, aurtengo 200 mila euro itzuli behar dizkiogu Adundia-ri, 2011 hasieran diru gehiago eman zutelako gero zergetan jaso zutena baino. Gainera, 2009koaren zati bat ere aurtengo ordea, bestelako murrizketak egin behar izan dira. "Gaztedia, Kirola, Euskara, Aldundiari 2012ko aurrekontutik. Euriborragatik ere, iaztik hona igoera izan dugu Udalak dituen maileguen kostuan".

Gastuak murrizten

Aurrekontuak osatzerakoan

zinegotzi guztiek egindako lana nabarmendu du Lizarragak. "Udalaren egoera ekonomikoa ikusita, ahal duguna jaisten saiatu gara, zerbitzuei kalterik egin gabe. Mantendu edo igo diren partidak, inbertsioak salbu, guk erabaki ahalmen txikiena dugun kontuak dira: Gastu finantziarioak eta pertsonala". Ohiko gastuetan izan da jaitsiera dezentea. "Zerbitzuak ematen dizkigutenekin kontratuak berrikusi ditugu eta eguneroko gastuak kontrolatzeko neurriak hartu ditugu. Horietan sakontzen segi behar dugu".

Eguneroko gastuaz gain ordea, bestelako murrizketak egin behar izan dira. "Gaztedia, Kirola, Euskara, Aldundiari 2012ko aurrekontutik. Euriborragatik ere, iaztik hona igoera izan dugu Udalak dituen maileguen kostuan".

rakoan, diru gutxiagorekin, beste era batera antolatzen saiatzen ari gara. Badakigu jendeari kasu askotan borondate handia eskatzen diogula, gauzak diru gutxiagorekin egiteko".

«4 milioi euro eskatu da mailegutuan azken hamarkadan»

Diru sarreraren jaitsiera

Gastuak 2011ko antzekoak izan arren, diru sarreretan %22ko jaitsiera aurrikusten da. Iaz 4,036 miloi euroko diru sarrerak aurrikusi ziren, aurtengo 3,541 miloi eurokoak. "Arrazoi nagusia da iaz Joxe Arregi plazako etxebizitzengatik jaso zela dirua. Era berean, kontuan hartu behar da aurtengo Aldunditik jasoko dugun diru kopurua 2011 eta 2010ekoak baino txikiagoa dela". Ondorioa argia da: Ez dute bat egiten sarrerak eta gastuak. Hala ere, Udalak ez du mailegurik eskatzeko asmorik. "Sarreraren atalean zurrak jarri ditugu eta gastuen atalean goitik jo dugu. Ondorioz, azken ezberdintasuna txikiagoa izango dela uste dut. Hala ere, aldea izango da. Kontua da ordea, aurtengo dirua daukagula, iaz jasotakoa gorde egin dugulako. Ondorioz, urtea maile-

gurik eskatu gabe igarotzea lortuko dugu. Izugarritzko zuloa dago eta arduraz jotuz, ezin dugu areagotzea onartu".

Orain arteko mailegu politika salatu du Lizarragak. "2003tik urtero-urtero maileguak eskatuz borobildu dira aurrekontuak, gu horrekin hausten ari gara. 4 milioi euro eskatu da mailegutuan azken hamarkadan. 2024ra arte ez dugu amaituko orain arteko maileguei aurre egiten. Triste dena da egoera ekonomiko okerrean ez daukagula zorpetzeko ahalmenik, egoera ona zenean arduragabekiaz zorpetu direlako. Eurek azaldu behar lukete garai hain onak izan direnetan nola zorpetu diren hainbeste, eta nire ustez herrian gauza gehiegi egin gabe gainera".

Arazo estrukturala

Zizurkilek duen zorraren arazoaz gain, arazo estrukturala ere badu. "Pertsonalak eta ohiko gastuak aurrekontu osoa ematen digute, gure tamainako beste udaletan baino askoz gehiago. Zizurkil herria bi gunetan banatuta dagoelako zerbitzu asko bi-koiztuta ditugu. Bi udaletxe, 3 ikastetxe, bi kultur etxe... Horrek sekulako pisua du". Ez da irtenbide erraza duen kontua. "Epe luzera, biztanle kopurua igo eta Udaleko estruktura mantentzea litzateke irtenbidea, hor bilatuko



Nerea Lizarraga herritarrei aurrekontuen inguruko azalpenak ematen

dugu oreka puntua".

Ondorio praktiko gisa, Lizarragak adierazi du, "Udalaren egoera honetan egoteak asko baldintzatzen du gure

proiektua aurrera eramateko orduan. Auzolana bezalako kontzeptuak ere landu behar dira ziurrenik, gauzak egin nahi badira".

Los presupuestos de 2012

Después de haberlo presentado a las y los zizurkildarras, a finales de mes se aprobará el presupuesto de 2012. En el apartado de gastos, la cuantía asciende a 3,935 millones de euros, similar al de 2011. Sin embargo, según nos explica la concejala de hacienda Nerea Lizarraga, "si no hubiéramos hecho recortes, el presupuesto habría sido superior. Este año tenemos que devolver 200.000 € a la Diputación, porque hubo un desfase en 2011 entre el dinero que recaudaron en impuestos y el que presupuestaron a principios de año. Además, tenemos que devolver

una parte del desfase del 2009, que entonces se decidió retrasar. Es decir, 326.000 € más en total solo en estos conceptos".

Recortes en gastos

Recortar en el gasto corriente ha sido una prioridad. "Hemos revisado contratos con las empresas que nos prestaban servicios y hemos tomado medidas para controlar el gasto diario". Sin embargo, también se ha reducido en otros departamentos. "Hemos tenido que reducir ayudas a las asociaciones del municipio, incluso a las comisiones de fiestas. Sabemos que estamos pidiendo

Aurreikusitako inbertsioak

Murrizketak handiak izan arren, zenbait inbertsio egingo dira 2012an. Gehienek, zati batean behintzat diru laguntza dute. "San Migel auzuneko urak bideratzeko bigarren fasea egingo da 2012an. Hori da inbertsio handiena. Gero, Pedro Mari Otaño ikastetxeko lehioak berrikuntza dira eta Atxulondo kultur etxean igogailua jartzea ere aurrikusi dugu. Azken honen kasuan, agian atzeratu liteke eta 2013an gauzatu. Hiru horiek dira handienak. Gero inbertsio txikiagoak ere egingo dira, San Millan

eskola ondoko prefabrikatuak kendu egingo dira eta Zizurkil goian aparkamentu bat egitea ere aurrikusi dugu aurrekontuetan".

«San Migel auzuneko urak bideratzeko bigarren fasea egingo da 2012an»

un esfuerzo a la gente para organizar los eventos con menos dinero, y eso mismo estamos haciendo con los actos organizados por el Ayuntamiento".

Aunque el cómputo general de gastos sea parecido al de 2011, en cuanto a ingresos se prevé un descenso del 22%. "El principal motivo es que el año pasado se recibió dinero por las obras de la Plaza Joxe Arregi". La conclusión es clara: hay diferencia entre gastos e ingresos. Sin embargo, Lizarraga explica que no se va a pedir ningún préstamo más. "En el apartado de ingresos hemos sido muy estrictos. Eso

quiere decir que la diferencia no será para tanto y lo podremos subsanar con el dinero que se ha guardado del año pasado. El Ayuntamiento de Zizurkil tiene contraída deuda tremenda que no podemos permitirnos aumentar. Para los siguientes años, tendremos que hacer más recortes o explorar como recaudar más". Hay que tener en cuenta que desde el 2003 hasta el 2010 todos los años se pidió un préstamo. "Lo lamentable es que en los años de bonanza el Ayuntamiento se endeudó hasta las trancas y ahora, en los años de crisis, tenemos que hacer frente a ello".

ERREPORTAIA

AHT-ren ondorioak Hernialde Zizurkil tartean

Zizurkilen Abiadura Handiko Trenak izango duen ibilbidea bi zatitan banatu dute. Aurreko alean, Zizurkil Andoain zatiko xehetasunak aipatu genizkizuen. Oraingoan Udalera urte hasieran iritsi zen Hernialde Zizurkil proiektuaren berri dakarkizuegu.

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako gobernuak aurrera jarraitzen dute Zizurkil erabat itxuraldatuko duen AHT-ren proiektuarekin. Xabier Pellejero, gaia gertutik jarraitu duen herritarrekin bildu gara Hernialde Zizurkil tartearaz hitz egiteko. Elkarrieketa egin genuen garaian oraindik tartearen esleipena egin gabe zegoen eta alegazioak aurkezteko epea ireki zain zen Udala.

Tunelak eta biaduktua

Tarte horren barnean, AHT-k Zizurkilen egingo duen ibilbidea azaldu digu Pellejero. "Zizurkilera, Anoeta eta Asteasu mugan iritsiko da tren. Danobat, Asteasu Ugarte baserriko txekortegia dagoen gunea baino lehentxeago aterako da tunelean. Hor metro gutxi batzuetan kasik lur mailan, bistan joango da. Gero, txekortegi parera iritsitakoan, Burrusti baserri gaineko mendi horretan tunel artifiziala egingo dute. Hau da, mendi hori erdiz erdi irekiko dute, eta gero itxi, tunela utziz. Jarraian,

Zati horrek kaltetzen dituen etxebizitza batzuk ere aipatu ditu Pellejero. "Burrusti baserriko ikuilutik 15 metrora pasako da biaduktua, kasik ateetan. Etxebizitza berriz, 90 metro-tara. Ugarteko txekortegitik 20 metrora pasako da".

Obretarako guneak eta trafikoa

Obretarako zati bakoitza berez, independentea da, baina ez da errealitatean betetzen. "Horren adibide, zati honen proiektuan ageri direla Zizurkilgo obretarako gune guztiak. Alegia, obretan ariko diren garaian, etxolak, makinaria, kamioiak eta bestelakoak edukitzeko guneak. Aurreko zatian, Zizurkilen ez zen aurreikusten bat bera ere. Oraingo honetan berriz 4 ageri dira. Bat Aduni-barko zelaian; bigarrena, Me-



riola etxe gainekaldean; hiru-garrena, txekortegiaren atzeko lurretan; eta laugarrena eta handiena, Burrusti inguruko zelaian egingo dute. "Biaduktu

azpia eta inguru osoa hartuko du. 11 mila metro karratuko gunea da. Jendeak ideia egiteko, Anoetako futbol zelaia eraberritu modukoa".

Udalabereziki kezkatzenduen gaia kamioi eta bestelakoen joan-etorria da. "Aurreikusten dena da kamioiak Asteasu joateko bide nagusitik barrena ibiltzea eta gero Asteasu Ugartera joateko bidetik sartzea. Ondoren, orain bidegorria den horretatik barrena iritsiko dira obretara, ez dute beste biderik egingo. Egia da bidegorri berria Burrustiko beheko aldetik ari direla egiten, baina zati batean, zubian, bat egingo dute etorkizuneko bidegorriak eta kamioien bideak. Trafiko hori bereziki Burrustiko familiarentzat eta han inguruko etxeentzat izango da latza. Asteasu errepidea ere garrantzitsua da, eta nahitaez, hor ere arazoak egongo dira".

Herritarrekin bilera

Proiektuaren beste zatia iritsi zenean bezala, Udalak bilera irekia egin du herritarrekin. Pe-

llejero salatu du AHT bultzatzen dutenen jarrera. "Ez diete zuzenean kaltetuei ezertaz informatzen, eta noski, jendearen kezka handiak dira". Herritarrei azaldu zieten, oraindik epea ireki gabe egon arren, alegazioak lantzen ari da Udala. "Aztertzen ari gara da eskatzea Asteasu errepidetik zuzenean lanetara bide bat egitea. Helburua argia da: Burrusti eta Asteasu Ugarteko egungo bidea ahal den gutxien

erabili dezatela obretarako, inguru horretako herritarren bizi baldintzak hobetzeko. Hori bai, gauza bat da guk eskatzea, eta oso bestelakoa, eurek onartzea". Proiektuaren arabera 42 hilabete iraungo dute obrek. "Hasiera batean lehenengo Zizurkil Andoain tartea hasiko da baina argi esan behar dugu: 2013rako biak lanetan izango dira, herritarren kalterako". Obra esleitura egon bezain pronto, bilera eskatuko du Udalak arduradunekin.

Betelanaren aurka, bat eginda

Aurreko alean aipatu moduan, Zizurkil Andoain tarteko lurra jasotzeko, zaborte gisa Zizurkil herriguneko sakonune bat aurreikusten da, baita gune horretarako bide berri bat egitea ere. Horri aurka egiten saiatu da azken asteetan Zizurkilgo Udala. "Udalak, Adunakoarekin elkarlanean, lurra Adunako munitetan sartzeko eskaintza egin du, Adunan eta Zizurkil goian egin nahi diren betelanen ordez", azaldu du Xabier Pellejero. Eskaintza egiteaz gain, alegazioak aurkeztu dituzte elkarrekin Udalak eta betelanaren proiektuak zuzenean kaltetzen dituen guztiak.

Argudio juridiko-teknikoak

Alternatiba bat eskaintzeaz gain, eragozpen juridiko eta teknikoak jarri dira alegazioetan. "Betelana egin nahi duten gunean saneamendu hoderia

dago, eta obra arduradunekin bilera egin genuenean esan genien hori mugitu egin behar lukeela. Kamio etxe azpiko gunean urak pilatzen direla ere esan genien eta gainera, dagoeneko betelan dezentea egina zegoela ere ez zekiten. Horrez gain, bide berria eginez gero, ostera desegitea eskatu genien". Eragozpen juridikoak ere badira, "Eusko Jaurlaritzako ingurugiro sailak onartu behar du betelan hori eta tramite hori ere ez zuten egina". Egin-dako pausuen ostean, baikor dira Udaletik. "AHT-ren gaian gauza gutxi lortuko ditugu, hau izan liteke bat. Azkenean, beraiek ulertzen duten hizkuntza bakarra ekonomikoa da. Ulertarazten saiatu ginen kostu handia eta aprobetxamendu gutxi izango lukeela Zizurkilen egin nahi duten betelanak". Datozen asteetan argituko da gaia.

El impacto del tramo Hernialde Zizurkil del TAV

A principios del año recibió el Ayuntamiento el proyecto del TAV Hernialde-Zizurkil. Este tramo, en lo que se refiere a Zizurkil, empieza a la altura de la ganadería Danobat, y termina al final del túnel de Urkamendi. Según nos explica Xabier Pellejero, consta de dos túneles y un viaducto. "El viaducto empieza en el caserío Burrusti y finaliza en la entrada del túnel de Urkamendi. En total tiene 500 metros de largo y un máximo de 34 de alto, con 8 pilares grandes. El Viaducto pasará a apenas 15 metros

de la ganadería de Burrusti, a 90 del caserío".

Instalaciones auxiliares

Aunque en principio cada tramo es independiente, en este tramo aparecen todas las instalaciones auxiliares del TAV en Zizurkil. Es decir, las parcelas que se utilizarán para la maquinaria, las cabañas, etc. La mayor de todas las instalaciones auxiliares se proyecta en los alrededores del caserío Burrusti. "Se trata de una macro instalación de 11 mil metros cuadrados, es decir, la

medida del campo de Fútbol de Anoeta".

Otro aspecto a tener en cuenta es el del tráfico de camiones. "Los camiones utilizarán el camino general de Asteasu y luego entrarán hacia el caserío Asteasu Ugarte y por el bidegorri actual llegarán a la zona de obras. Eso será realmente duro para la familia que reside en el Caserío Burrusti y en general para las que lo hacen en las casas de alrededor. Además, habrá que ver como afecta al tráfico general".

Alegaciones

Por ello, en la reunión que el Ayuntamiento mantuvo con los afectados, se propuso hacer una alegación pidiendo que se haga una entrada directa a las obras desde el camino general, para tratar de mejorar las condiciones de vida de las vecinas y los vecinos de la zona. "Todavía no han abierto el plazo de alegaciones, y haremos lo posible. Lo realmente duro es que los que promueven este macro proyecto no se reúnen con las y los vecinos, ni siquiera con los directamente afectados".

ERREPORTAIA

Armarri berria, erresuma zaharrari keinua

Aurten 500 urte betetzen dira Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu zuenetik. Urteurren hori baliatuz, Hernandorena Kultur Elkartea udaletxearen fatxadan zizelkaturik azaltzen diren 12 kanoiei begira jarri da, eta galdera hau luzatu die zizurkildar guztiei: Ba al dakizu nondik atera diren kanoi horiek? Eta hala bada, Zizurkil eta zizurkildarron errealitatea islatzen dutela uste al duzu?

Lehenengo galderaren erantzuna gure historiako orrietan dago. Hernandorena taldekoek eurek eman zituzten azalpenak urtarrean argitaratuta, Plaza Berrirentzat: "1512. urteko udan, Gaztelako errege Fernando Katolikoaren tropek Nafarroa konkistatu zuten. Bien bitartean, Nafarroako errege-erreginak, Joan eta Katalina Albretekoak, egungo Ipar Euskal Herrian erbestearatu ziren. Frantziako Luis XII. ak nafarrez eta mertzenario alemaniarrez osatutako ejertzitza eskaini zien Albretarrei

erresuma berreskuratu zezaten. Iruñearaino iritsi ziren, eta hiriburu zaharra setiatuta edukitu zuten denbora batez. Baina hilabete gutxira, Gaztelatik ejertzito bat abiatu zen Iruñearantz, Nafarren aldeko armada baino askoz ere handiagoa. Erretiratu beste erremediorik ez zuten izan. Abendua zen jada. Iparralderako bidean, Baztango lurretan zirela, Belate parean, artilleria garraiatzen zuen nafarren aldeko alemaniar mertzenario talde batek gaztelarren bandoko gipuzkoarrez, batzuk zizurkildarrak agian, osatutako armada txiki batekin egin zuten topo. Mer-

tzenarioak izaki, armak utzi eta ihes egin zuten. Gaztelarrek garaipen gisa hartu zuten Belaten lortutako armamentu hori. Gaztelako erregina Joana Eroak, opari gisa, Gipuzkoari eman zion 12 kanoiak bere armarian jartzeko ohorea".

Ikusten denez, ikuspuntu militarretik Belateko gertaerak ez zuen aparteko garrantziarik izan, baina Gaztelaren garaipen gisa saldu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko armarian ez ezik, Lizartza, Antzuola eta Zizurkilgo armarietan ere irudikatu ziren kanoi horiek. Gipuzkoako Aldundiak 1979an kendu zituen 12 kanoiak bere armarritik. Egungo Lizartzako armarian ere ez da kanoirik ageri, eta antzuolarrak armaria aldatzeko lanean ari dira. Ekimena aurkeztu duten herritarrentzat bada nahikoa arrazoi Zizurkilen ere kanoiak kentzeko. "Baina guk ez genuen erabaki hori hartu nahi. Beraz,



urtarilean gure armariaren jatorria azaltzen zuen Sustraia plazaratu eta herritarrek hausnarketa prozesu batera gonbidatu genituen". Etxe guztietara helarazitako ohar baten bidez, otsailaren 22an, armariaren lanketari buruzko taldea sortzeko bilkura-deialdia egin zuten. Azkenik, egun horretan Atxulondo Kultur Etxean bildu zen herritar multzo batek Zizurkilgo armaria aldatzeko erabakia hartu zuen. Talde edo batzorde horrek gidatuko du armari aldaketa.

Armarria aldatzeko prozesua

12 kanoiak kentzea ez da nahikoa. Ordezko armaria sortu behar da. Horretarako bi bide paralelo jorratu behar dira: "Lehenengoa herrian eta herritarrok landu beharko dugu armariaren aldaketa sozializatuz. Oso ondo etorriko zaigu Nafarroako Erresuma

«Helburua Zizurkilen dauden bi komunitateak identifikatuko diren irudia lortzea da»

konkistatu zuteneko 500. urteurrena, Euskal Herri mailan hamaika ekintza egingo baitira honen harira. Baina Zizurkilen ere landuko dugu gaia, aurtengo Maiatza Saltsan 1512ko gertaerei eta armari aldaketari eskainia egongo baita, jakinarazi dute. Dena den, maiatzetik haratago, urte osoa hartuko du armari aldatzeko prozesuak. Izan ere, bigarren bidea, bide administratiboa da, Hernandorenakoak aurreratu dutenez, luzeagoa eta konplexuagoa: "Herriak armari berria aukeratzen duenean, Udalak pleno batean armaria aldatu nahi duela erabaki behar du, armari zaharraren ordezko gisa aukeratutako armari berria proposatuz. Armari berria, bere gainera xehetasun teknikoarekin batera Foru Aldundian aurkeztu behar da. Aldundiak Eusko Ikaskuntzari emango dio proposamena, eta azken horrek, txostena aztertu ondoren, Aldundiari itzuliko dio. Azkenik, Aldundiak eta berriro Udalak baiezkotzea eman da jarriko da armari berria ofizialki indarrean". Metodologia

hori jarraitu dute Gipuzkoako beste zenbait herritan, mugakide dugun Anoetan besteak beste.

Armarria aldatzeko batzordeak abendurako aurkeztu nahi luke irudi berria. "Prozesu adiministratiboa amaituta ez badago, Udalak logo gisa erabil dezake irudia. Izan ere abenduan ospatuko da Belateko gertaeraren 500. urteurrena, eta festa baten erdian armari berria aurkezteko gure anaia nafarrei egiten diegun aitorten moduko bat izango litzateke". Keinu hori zuzenean irudikatuko da gainera. Izan ere, Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, Zizurkil eta Faltzesko herriak elkartu egingo dira. Maiatzean zizurkildarrak izango dira Erriberako herrira jaongo direnak, eta trukean, Zizurkilek abenduko festa honetara gonbidatuko ditu Faltzesko anaiak.

Armarri berriaren aukeraketa

12 kanoiak kendu, eta helburua Zizurkilen dauden bi komunitateak identifikatuko diren irudia lortzea da. Batzordea hori lortzeko moduak aztertzen ari da. Oraindik ez dute zehaztu, baina baliteke ideien lehiaketa ireki bat deitu eta proposatzen diren ideiak irudi ezberdin batzuetan jasotzea. "Irudi bat baino gehiago ateratzen badira erakusketa publikoan jarri eta bozketa bat ere egin daiteke", aurreratu dute.

El nuevo escudo, desagravio al antiguo reino

¿Sabes de dónde provienen los 12 cañones de nuestro escudo? Y en ese caso ¿consideras que representan verdaderamente la forma de ser de Zizurkil y los y las zizurkildarras? Con esta pregunta abrió Hernandorena Kultur Elkartea el debate sobre el cambio del escudo de Zizurkil a principios de año. "Los cañones que aparecen en nuestro escudo representan a los que dejaron los mercenarios Alema-

nes que luchaban a favor del Reino de Navarra, al darse a la fuga cuando se encontraron en tierras de Baztan, concretamente en Belate, con un ejército formado por los Gipuzkoanos del bando de Castilla. Para honrar tal logro Juana La Loca le regaló a Gipuzkoa el derecho a utilizar la imagen de los 12 cañones en su escudo". Para los componentes del grupo hay razones suficientes para cambiar el escudo,

y defendieron esta postura en la reunión abierta que se realizó para debatir este tema. La comisión que se formó en la citada reunión decidió cambiar de escudo. Con ese objetivo se ha puesto en marcha un proceso con 2 líneas de trabajo: por un lado la socialización del tema y la puesta en marcha de un concurso de ideas de donde saldrá el nuevo escudo del pueblo; la segunda línea será de carácter

administrativo, que fundamentalmente se centra en la petición de sustituir el viejo escudo por el escudo que se elija. Se prevé que el nuevo escudo estará definido para noviembre, que es cuando se presentará como motivo de la fiesta para recordar lo ocurrido hace 500 años en Belate. Además este año Maiatza Saltsan estará dedicado al quinto centenario de la invasión del antiguo Reino de Navarra.

ERREPORTAIA

San Millan eskolak 100 urte, zorionak!

Ehungarren urteurrena merezi bezala ospatzeko aste osoko egitaraua prestatzen ari dira irakasle eta gurasoak ekainaren bigarren asterako.

festa egun batekin amaituko da ekainaren 10ean. Batzordea eskolako irakasle izandakoen arrastoaren atzetik dabil, egun berezi horretara gonbidatu asmoz. Era berean, ikasle ohiei ere deialdia luzatu nahi die beste era batzuen artean orri honen bitartez. Eguna ekintzaz beteta egongo den arren, Zimiteioan egingo den bazkaria izango da eskolako lehengo eta oraingo kideak elkartzeko abagune onena.

Argazki Zaharren erakusketa

Ekainaren 10ean ez ezik, aste osoan zehar zabalik egongo da Iriarte Etxean eskolaren 100 urteko ibilia jasoko duen argazki zaharren erakusketa. Hori posible izateko argazkiak biltzen ari dira. Don Emiliaga eskolako argazkiren bat duenak,

Zizurkilgo Udal Bulegoetan edo eskolan bertan utzi dezake. Digitalizatu eta berehala itzuliko zaio.

Erakusketaz gain, bestelako ekintzak ere aurreikusten dira. Esate baterako, gurasoek lehengo jolasak erakutsiko dizkiete egungo ikasleei. Honekin batera, Eskola Txikiei buruzko hitzaldiren bat ere antolatuko da Iriarte Etxean. Eta ikasle ohientzat, San Millango ikasle zireneko urteak gogoratzeko tertulia antolatuko da.

Egungo ikasleak ordea ez daude ekaina noiz iritsiko zain, eta dagoeneko hasi dira urteurrenari lotutako hainbat ekintza egiten. Esate baterako, eskolako ikasle ohien bisita bat baino gehiago jaso dituzte. Hizlari horien bidez, gaurko txikiek lehengo eskolaren eta bertako bizimoduaren berri jaso dute.

La escuela San Millán cumple 100 años, Zorionak!

Para celebrar el centenario la comisión de la escuela está preparando una amplia programación para la segunda semana de junio. La guinda del pastel será la fiesta que se celebrará el 10 de junio, cuyo plato principal será la comida que se hará en el

frontón. Esa comida será una buena excusa para que se junten el profesorado, el alumnado y las madres y los padres que han pasado por la escuela. Y es que todos ellos han hecho posible alcanzar este aniversario. Otro plato fuerte de la programa-

ción va a ser la exposición de fotos antiguas de la escuela que se expondrá en la casa Iriarte. Si tiene fotos de la escuela en casa, no tiene más que entregarlas en las oficinas del Ayuntamiento o dirigirse directamente a la escuela San Millán.

ERREPORTAIA

Txepetxa, gazte asanblada berria

Euskal Herriko hegaztirik txikiena izanagatik ere gurean gogor astindu eta astinduko ditu hegoak Txepetxak, Zizurkilgo Gazte Asanblada berriak.



Abenduaren hasieran abiatu zuen bere hegaldia Txepetxak. Gaztedia Batzordearen baitan mahai gainean jarri zen Gazte Asanblada osatzeko asmoa. "Afari-merienda moduko bat antolatu genuen gero, eta adin guztietako 40 bat lagun bildu ginen" dio Aratz Alkorta gaztedia zinegotziak.

Hilabete hartan bertan bi ekintza burutu zituzten Asanbladaren baitan bildutako gazteek: batetik, Euskal Preso eta Iheslarien alde Gabonetan abestera ateratako taldearekin bat egin zuten eta bestetik, Euskal Selektzioak Bilbon jokaturako futbol partidurako autobusa antolatu

zuten elkarrekin joateko. Ostiraletan goiko Zentroan egiten diren mus partidak ere beregain hartu ditu Txepetxak.

Gazte Eguna, martxoaren 24an

Udalak bitartekari lanak egin dituen arren, Gazte Asanbladak autogestioa du oinarri. Santa Agedan abestuz eta zozketa rifak salduz ateratakoarekin lehen ekitaldi handia antolatu dute jada. Gazte Eguna martxoaren 24an ospatuko da Zizurkil goian eta egitarau zabala atondu dute: bazkaria, bertso-poteoa eta Gugaz eta Ingo Al Deu? taldeen

kontzertua tartean.

Gazte guztiak gonbidatuta daude egun handira eta noski, baita Gazte Asanbladan parte hartzera ere. Goiko Zentroan biltzen dira Txepetxako kideak asteartero arratsaldeko zazpiak aldera. Alkortak dioen moduan "herriko gazteen artean harremanak sortu eta estutzea da helburua eta kanpora joan beharrik gabe herrian bertan elkarrekin ondo pasa ahal izatea".

Gazte Eguna

Egitaraua:

11:30 – Herriko gazteen arteko kirol erakustaldia
Ondoren, Txepetxa Gazte Asanbladaren aurkezpena eta rifaren zozketa
14:00 – Gazte Bazkaria
Ondoren, jolasak
18:30 – Bertso-poteoa
19:30-21:00 – Gugaz taldea
23:00etatik aurrera – Gugaz eta Ingo Al Deu?

Oharra: Gazte Eguna Zizurkil goian ospatuko da. Eguraldi txarra eginez gero, Zimiteioan ospatuko dira ekintzak eta ona eginez gero, berriz, plazan.

Gazte eguna de la mano de Txepetxa

La nueva Asamblea de Jóvenes Txepetxa ha comenzado su andadura con fuerza. Prueba de ello el gran día que han organizado al poco de formarse y tan pronto como han podido autofinanciarlo, cantando en Santa Ageda y vendiendo rifas, han podido organizar Gazte Eguna.

El evento tendrá lugar el día 24 de marzo y han preparado un completísimo programa que incluye herri-kirolak entre jóvenes, una comida popular para todos/as que se animen, bertso-poteo y conciertos de los grupos Gugaz e Ingo Al Deu?.



Mende honetan zehar Zizurkilgo San Millan Eskolako ikasle, irakasle, edota guraso izan diren guzti horientzako festa izango da ekainekoa. Eskolaren mendeurrena antolatzen ari den batzordearen desioa urtebetetze boro-bila batera ospatu eta elkar zoriontzea da, modu batera edo bestera, eskolako parte izan den orok eman baitio bizia eskolari. Asmo hori gauzatzeko, aipatutako astea

HERRITARREN TXOKOA

DORITA LORENZO



“Hizkuntzagatik ez naiz inoiz diskriminatua sentitu”

Señorita Dorita, maistra eta herritarra

Noiz eta nola iritsi zinen Zizurkilera?

1970. urtean hasi nintzen Otañon lanean, eta orduan-txe. Ni Medina del Campokoa naiz, Valladolidekoa. Bertan egin nituen magisteritzako ikasketak. Lehenik Burgo-sen egon nintzen maestra, bi toki ezberdinetan. Gero euskal probintzietan lan egiteko eskaera egin nuen delegaritzan. Mutrikuko Astigarribia auzoan egon nintzen sei urtez. Altzon beste bi urte eman nituen. Azkenik Zizurkilera iritsi nintzen, eta Otañon egon nintzen irakasle 1993. urtean 60 urterekin jubilatu nintzen arte.

Nola gogoratzen duzu zure iritsiera?

Orduan lankide nituenak izugarri babestu ninduten. Margarita eta Marina ditut gogoan. Oso onak izan ziren nirekin.

Eta herritarren aldetik, zer nolako ongi etorria egin zaizue kanpotik iritsi zaretenoi?

Nik ez dut kexarik, benetan. Gainera, hemen gaizki hartu izan banindute beste

toki batera joango nintzen eta kitto. Nire senarrak esaten zuen ez zuela hemendik inora joan nahi, oso jende jatorra zegoela Zizurkilen.

Eta euskararekin zer molduz moldatu zara?

Kuriosoa da: horrenbeste urtetan irakasle izan eta ez dut euskaraz hitz egiten ikasi. Nire seme-alabak aldiz, denek hitz egiten dute. Dena den, hizkuntzagatik ez naiz inoiz diskriminatua sentitu.

D eredua martxan jarri zenean nola moldatu zinen?

Gogoratzen naiz Otañora inspektorea etorri zenean esan zidanaz: zuri ez dizut euskara irakatsi araziko, laster jubilatu behar zara eta! Euskara ez zekiten beste irakasleek euskara ikasi behar izan zuten. Beste batzuk aldiz, hemendik joan ziren Nafarroara. Nik gaztelaroko klaseak ematen jarraitu nuen, eta arazoak zituzten ikasleei bakarkako eskolak ematen nizkien.

Lehengo maistrek gogorraren fama daukazue. Nolako irakaslea zinen zu?

Ni ez naiz irakasle gaiztoa izan. Nire ikasleen alde egin dut lan beti. Beraiekin jolas-tu dut futboleko errekrea-garaian, euren etxetara gonbidatu naute, eta nik nire etxera gonbidatu izan ditut. Hori bai, esan beharra daukat beti eramaten nuela klasea prestatuta. Oso fina nintzen horretan!

Hezkuntza asko aldatu da...

Askok. Lehengo umeak esanekoagoak ziren. Dena den, ez dakit zeintzuk aldatu diren, umeak edo gurasoak...

Zer nolako harremana duzu zure ikasle izandakoekin?

Kalean topo egiten dugunean, geratu eta bi muxu ematen dizkidate. Ikasle ohiekin eta euren gurasoekin ere bai, harremana daukat. Izan ere, familia batzuei asko lagundu diet. Mesede bat eskatu didanari mesedea egin izan diot. Hori izan da nire lema beti eta batzuk beti eskertu izan didate hori.

Esaiguzu...

Herriko txoko kuttun bat:

Jubilatuaren egoitza. Denbo-

ra asko pasatzen dut bertan, diru kontuak egiten. Zaharren egoitza ere aipatu nahi nuke. Astelehen eta asteazkenetan joaten naiz bolondres moduan lauetatik seietara.

Herriko pertsonaia bat:

Margarita Eizmendi. Oso pertsona ona da, une txarretan laguntzen dizun horietakoa. Don Bartolome apaiza da beste pertsonaia bat. Askok lagundu zidan iritsi nintzenean.

Zer botatzen duzu faltan?

Futbol zelaia itxurazkoa behar dugu. Nire bilobak Zubietara joan behar izaten dute askotan jolastera. Eta gauza askotan, ikusten dut Villabonaren menpe geratzen garela. Herri bat gara, eta horrek ez luke hala behar.

Eta zer du soberan?

Gainontzean, herri polita daukagu. Askok gustatzen zait Ubare auzoa nola geratu den. Pagamuñon ere lan ona egin dute. Eta Asteasuko bidegorria berriz... ea noiz hasten den eguraldi ona joan-eto-erri batzuk egiteko.

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.